

SARRERA

Maiatzaren 8, 9 eta 10ean Sarean elkartearen XXIV.TOPAKETAK izan ziren Donostiako Miramar jauregian.

Topaketa hauetako gaia “**Curriculuma: ikastetxeko dokumentuak eta prozesuen egokitzapena**” izan zen. Ikasturte honetan Lehen Hezkuntzako 1go zikloa dago Curriculum berrian murgildurik eta datozen bi ikasturteetan etapa osoa egongo da. Aldaketa honek ikastetxeetan zer suposatuko duen, zer egin den aztertzea, zer nola baloratzen den eman prozesua eta ikastetxeetatik zer hutsune eta eskaera egiten ziren jasotzea zen TOPAKETA hauen helburua. Beti bezala jasotako ondorioak Hezkuntza Sailera bidaliko dira hauek ikastetxeetan bizi denaren eta aldarrikatzen denaren informazioa zuzena izan dezaten.

TOPAKETA hauen ondorioak Berrikuntza atalarentzat baliagarriak izango direlakoan gaude errealitateetik abiatzea egokia baita edozein plan diseinatzeko garaian.

XXIV. TOPAKETAREN DISEINUA

- Maiatzaren 8an:
Hitzaldia: Juan Jose Agirrezabala Jauna. “*Curriculuma: ikastetxeko dokumentuak eta prozesuen egokitzapena*”
- Maiatzaren 9an:
Goizez: Talde txikietako hausnarketa lana
Arratsaldez: Talde txikietako lanaren elkarjartzea
Hitzaldia: Koro Lete eta Maite Perez “*Konpententziak eta ebaluazioa*”
- Maiatzaren 10ean:
Ebaluazio saioa

PARTAIDETZA

97 irakasleek parte hartu zuten. Osteguneko saioa irekia izan zenez ez dago erregistratuta egun horretako irakasleen kopurua.

IKASTETXEEN KOPURUA 62

IKASTETXE MOTAREN ARABERA SAILKAPENA

•ESKOLA TXIKIAK.....	3
•LERRRO BATEKOAK.....	7
•BI LERROKOAK	29
•HIRU EDO GEHIAGO.....	23
•BESTE ERAKUNDEAK.....	3

1.- IKASTETXEETAN EGITEN DIREN PROIKETUEN INGURUKO DATU BILKETAREN ONDORIOAK

IKASTETXEETAN BURUTZEN DIREN PROIEKTU KOPURUA:

- PROIEKTU BAT..... 3 IKASTETXE
- BI PROIEKTU..... 9 IKASTETXE
- HIRU PROIEKTU 21 IKASTETXE
- LAU PROIEKTU..... 15 IKASTETXE
- GEHIAGO.. 12 IKASTETXE

IKASTETXE GEHIENETAN BURUTZEN DIREN PROIKETUAK

- GARAPEN JASANGARRIA: 28 IKASTETXE
- TEKNOLOGIA BERRIAK: 21 IKASTETXE
- HIZKUNTZAK (HNP): 20 IKASTETXE

ARRAKASTA GUTXI DUTEN PROIEKTUAK

- GIZARTE ETA KULTURA ANIZTASUNA: 1
- EUSKAL HERIKO ETA EUROPAKO ESPARRUAN:1
- ZIENTZIA HEZKUNTZAN: 2
- BERDINTASUNA ETA GENEROA: 2
- IKASKUNTZAREN KALITATEA: 3?
- HIZKUNTZA TRATAERA BATERATUA: 4
- HEZKUNTZA PREMIA BEREZIEN ARRETA:5

CURRICULUMA:9 (BERRITZEGUNEKO LAGUNTZA IZAN DUTENAK?)

IKASTETXEETAN BURUTZEN ARI DIREN BESTE ZENBAIT PROIEKTU:

- GLOBALAK (proiektu denak biltzen dituenak)
- Psikomotrizitatea
- Jolas kooperatiboak
- HH an logopedia
- Beste zenbait proiektu: eskola baratza, irratia, heziketa emozionala, hizkuntzak jolasen bidez, pentazitetea...

PROIEKTU BATZUEN INGURUAN JASOTAKO AHOLKULARITZAREN BALORAZIOA

Berritzegune bakoitzeko aholkulariak gaitasun desberdinak direnez era ezberdinetara baloratu daiteke baina orokorrean ikasturte honetan LPZ kanpo liberazioa izan duten proiektuen balorazioa hau izan da:

- IKT: Laguntza eskasa, administrazioa galduta
- Elkarbizitza: Ondo baloratu da egindako lana. Oraindik lan asko dago.

- Ikas-komunitateak: ondo baloratu da egindako lana
- Kalitatea: hasieran liberazioa lortuko zen espektatiba zabaldu zen baina ez zen gauzatu. Jasotako ikastaroa eskasa izan da. Beste ikastetxe baten tutoritza ondo baloratu da.

PROIEKTUEN INGURUAN SORTUTAKO ZENBAIT KEZKA ETA IRITZI.

- Zergatik proiektu batzuk liberazioa eta beste batzuk ez? Zein irizpide ditu departamentuak?
- Programetan nahaste handia, lehentasun gehiegi eraginkorra izateko. Administrazioak bultzatzen du proiektu piletan egotea. Antzeko proiektu gehiegi. Zergatik banatu dira hiru atal hauetan? Denontzako eskola ez al da eskola hobea eta hau ez al da XXI. mendeko eskola. Zergatik ez denak izen berdinean?
- Ingeleseko proiektutik ikastetxe batzuk atera dira. Ingeleseko proiektuaren emaitzak oraindik ez ditugu ezagutzen. Zertarako ebaluazioak emaitzak ez badira ematen?
- Proiektuak aurrera eramateko dugun aholkulariaren arabera asetze maila handiagoa edo txikiagoa dugu. Aholkulariaren papela garrantzitsua da eta desoreka handia dago.
- Proiektu batzuk ez badira ondo dinamizatzen errutinan erortzeko arriskua dute.
- Liberazioa izatea oso ondo etorri da. Orduak behar dira koordinazio bilerak eta lan taldeak antolatzeko. Orduak izatea ikastetxeari aukera ematen dio ordu horiek nahi duen eran antolatu ahal izateko.

2.- CURRICULUMAREN EZARPENAREN BALORAZIOA

Ikasturte honetan, Topaketan parte hartu duten ikastetxeetatik, 62tik, 9 ikastetxeek (%14,%) bakarrik hartu dute Curriculuma proiektu bezala. Hala ere beste ikastetxe batzuk ere informazioa eta beste zenbait lan puntual egin dituzte.

Balorazio aldetik gehien batek ipinitako nota gutxi bat izan da. Informazioa hobeto baloratu da formazioa baino.

Gurasoei informazio gutxi eman zaie irakasleen aldetik ere hutsunea ikusten delako. Nori eman behar die informazioa? Nola?

IKASTURTE HONETAN CURRICULUMAREN INGURUAN EGIN DIREN LANAK:

- Tutoretza plana: 21 ikastetxe (% 33)
- Curriculuma irakurri: 7 ikastetxe (% 11)

CURRICULUMA AZTERTZEKO IKASTETXEETAN SORTU DIREN LAN TALDEAK

Gaia aztertu duten ikastetxeetan talde desberdinak sortu dira. Gehienetan ikastetxeko talde txiki bat aritu da curriculumeko atal bat aztertzen edota datorren ikasturtean zer egin aztertzen aritu dira zuzendaritza taldekoak. Talde handia gehienetan informazioa emateko erabili da.

- LH1go zikloko mintegia
- Zuzendaritza eta aholkularia
- Batzorde Pedagogikoa
- Klaustroa

CURRICULUMAREN EZARPENAREN INGURUAN ZENBAIT KEZKA EDO IRITZI

- Informazioa jaso da era puntualean, Berritzeguneak, Ikasbatuaz, hitzaldiak, Cdak....baina formazioa ez.
- Administrazio aldetik laguntza gutxi. Administrazioaren inplikazioa behar dugu. Nola bideratu oraindik ez dakitela dirudi. Berritzeguneak ere galduta dabilzala dirudi.
- Aholkularitza ona behar dugu (nondik –nora joan behar dugun gidatzeko)
- Giza baliabideak, denbora behar da. Proiektu asko denbora falta. Lehentasunak ipini behar dira, baina nola? Denak dira garrantzitsuak.
- Klaustro osoa bildu behar dugu gai honen inguruan PIF garaian bezala.
- Galduta gaude. “Antsietatea” eta “agobio” sortzen da. Orientabide argiak eta material lagungarriak, ereduak falta dira. Lan sistema bat beharko genuke gaiari aurre egiteko.
- Lasaitasunez hartuko dugu.
- Testu liburu berrien zain gaude. Hauek curriculumera egokituta etorriko ote dira.
- Eztabaida zeri kendu denbora tutoretza ordua ateratzeko?
- Gure eguneroko lana curriculumetik ez dago urrun.

3- CURRICULUMA ETA BESTE PROIEKTUAK

Berrikuntza proiektu ofizialetan parte hartzea behartuak sentitzen gara baliabideak eskuratzeko edota diru iturri bat lortzeko. Ikastetxeen arteko lehia dela eta badirudi proiektu ofizialik ez badu ikastetxe batek, ikastetxean ez dela ezer egiten. Ikastetxeetan proiektu ofizialek at beste proiektu pila egiten dira.

Proiektu globalaren beharra ikusten dugu, proiektu guztiak uztartuko dituenak. Gaur egun proiektu solte gehiegi daude, asko gainera antzekoak direnak. Proiektu denak irakas-ikaskuntzan, ikastetxeko bizitzan eta giroan eta kudeaketan izango dute eragina uztartuko duten proiektu globalak.

Ikastetxe bakoitzak lehentasunak markatu beharko lituzke baina sarritan zaila egiten da lehentasunak markatzea.

4- NONDIK HASI CURRICULUM BERRIRA EGOKITZEN

Ikastetxe bakoitzak markatu beharko ditu bere lehentasunak, klaustro osoan dinamika adostuz. Horretarako irakasle guztien oinarrizko formazioa ezinbestekoa da.

Dena den, curriculumak gure lanean eragin zuzena izatea nahi badugu eguneroko lanetik hasia komeni da. Hasierako gogoetan gure praktika eta metodologia aztertu beharko genuke ondoren gure praktika hobetzeko proposamenak egin eta esperimendatzen hasteko.

Lan honetan klaustro osoa inplikaturik egon behar du. Talde desberdinak egon daitezke baina klaustro osoa egon beharko luke curriculum berria ezagutzen, oinarrizkoa formazioa jasotzen, eguneroko lana aztertzen eta aldaketak adosten.

Atal guztiak garrantzitsuak dira baina ebaluazio irizpideak ondo ezagutzeak eta aztertzeak eragin handia izan ditzake eguneroko lanean eta emaitzetan. Bestalde, 4.mailako diagnostiko ebaluazioa ondo erabiltzen bada baliagarria izan daitekeela ikusten da. Arriskuak ere ikusten dira: frogarako prestatzea, emaitzen erabilpena, ikastetxeen ranking-a...

Bestalde, irakasle edo departamenduaren koadernoak edo gelako programazioa idazteak gure eguneroko lana sozializatzea ekarriko du.

Berriztatu behar diren dokumentuak, IHP eta ICP , operatiboak, ulergarriak ,erabilgarriak eta errealitateak abiatutakoak izan behar dute. Berriztatzen hasi baino lehen ereduak praktikoak behar ditugu . Dokumentu hauek betetzeko epe luzeak izatea eta malgutasunez jokatzeko eskatzen da.

5.- BALIABIDEAK

Giza baliabideak behar ditugu, ikastetxeko dinamizatzailerak, ratioz kanpoko liberazioa izango duena. Ordu horiek Ikastetxe bakoitzak erabaki behar du nola banatu.

Curriculum berrira egokitutako **ikas materiala** behar dugu: testu liburuak, unitate didaktikoen ereduak, Cdak,... Departamenduak materialak sortzeko, antolatzeko eta zabaltzeko lan talde bat sortu beharko luke.

Dokumentuen , Unitate didaktikoen, ebaluazioen... **ereduak** lehenbailehen eskuratzea ezinbestekoa dugu.

Baliabide garrantzitsuena eta gutxiena duguna DENBORA da biltzeko, formatzeko, aztertzeko, erabakiak hartzeko ... Urteak beharko ditugu curriculuma sendotzeko.

6.- AHOLKULARITZA

Aldaketa prozesu honetan ikastetxeak gidatu eta orientatuko dituen aholkularitzaren beharra oso garrantzitsua da. Aholkulariak ikastetxearen beharretatik eta nahietatik abiatu eta prozesu hau bideratzen, gogoeta egiten lagundu behar du.

Ikastetxeek etengabekoa aholkularitza izan beharko lukete. Aholkulariak ondo formatuak izan beharko lukete. Gaur egun aholkulari asko ez daude prestatuta lan hau betetzeko.

Beste aholkularitza mota bat, praktika onak dituzten eskolen tutoretza, izatea ere baliagarria da eta eredu hau zabaltzea aztertu beharko litzateke.

7.- FORMAZIOA

Berezi egin behar da informazioa eta formazioa. Kasu askotan informazioa ematen da eta usten da formazioa dela. Hitzaldiak ez dira formazio saio bezala kontsideratzen Topaketa honetako partaideen aldetik.

Hezkuntza Sailak bultzatu nahi duen "formación en cascada" ez da benetan gauzatu: ikastetxeko irakasleak ez dute saio horietan informazio garbia jaso eta ikastetxean zabaltzerakoan galdu egin da.

Ikastetxeetako dinamizatzailerak formatuak behar dira (aste beteko GARATU ikastaroak edo antzeko zerbaitekin.)

Klaustrokideak formazioa saioetan curriculumaren filosofiaz jabetu behar dugu. Irakasle guztioi zuzendutako formaziorako denbora eta espazio komunak behar dira (gogoetarako foroa).

Unibertsitatea eta eskolen arteko harremana bultzatu behar da. Gaur egun ez da ematen eta hor dauden baliabideak galdu egiten ditugu.

8.- PARTAIDETZA-ANTOLAKETA

Lan talde txikiak eraginkorragoak dira. Dinamizatzaileraren lanetako bat talde handira zabaltzea eta adostasuna bideratzea izan behar du.

Lan taldeen egitura (denbora, partaideak, lantalde kopurua, e.a.) eta funtzioak ondo zehaztu behar dira eraginkorra izan dadin. Egungo egitura batzuk

zaharkiturik daude eta berriak sortu behar ditugu. Batzutan zaila egiten zaigu egitura berriak frogatzea.

Baliabide teknologikoak baliagarriak izan daitezke lana errazteko eta partaidetza bultzatzeko.

9.-DENBORAREN KUDEAKETA

Gogoetarako denbora behar da eta Ikastetxe bakoitzak bere lehentasunak zehaztuko ditu.

Edozein proiektu ikastetxetan errotzeko denbora behar da. Horregatik, gaur egun proiektu batzuk duten liberazio epeak luzatzea eskatzen da.

Irakasle, lan talde eta koordinazioa bileren ordutegi on bat egitea beharrezkoa da dugun denbora urriari ahal den eta etekin handiena ateratzeko. Bestalde, bilerak ondo prestatzea, bideratzen eta moderatzen jakitea eta ondorioak dagokion dokumentuetan txertatzea eta zabaltzea komeni da. Hau dena ondo egiteko formazioa eta aholkularitza beharko dugu sarritan.

Curriculumaren ezarpena nahiz eta 2010an bukatu prozesu hau sendotzeko ibilbidea luzeagoa izan behar duela antzematen da. Horregatik, prozesu hau eraginkorra izan dadin malgutasunez jokatzea eskatzen da.

ERANSKINAK

Ikastetxeei egindako galdeketen datu bilketa

PROIEKTUAK	ZENBAT IKASTETXEEK	LIBERAZIOA ZENBATEK
1.-Denontzako eskola	23	5?
a.Hezkuntza premia Berezien arreta	5	
b.Gizarte eta kultura aniztasuna	1	
c.Berdintasuna eta generoa	2	
d.“Kultura artekotasunerako eta ikasle etorri berrien” programa	15	5
2.- Eskola hobea	24	12
e.Aintzindaritza eta kudeaketa prozesuak		
f.Elkarbizitza eta hezkuntza komunitateak	9	5
g.Ikaskuntzaren kalitatea: arrakasta guztientzat	3	1
h.“Kalitatea hezkuntzan”, “Elkarbizitzan, Bakean eta Giza Eskubideetan hezteko” eta “Ikas-komunitateen” programak	12	6
3.-Eskola, XXI. Mendeko gizartean		
i.Curriculum berria eta oinarrizko gaitasunak	9	
j.Teknologia Berriak	21	4
k.Euskal Herriko eta Europako Gizarte Esparruan	1	
l.Hizkuntzak	20	
m.Zientzia-hezkuntza	2	
n.Garapen iraunkorra (agenda 21)	28	
o. “ Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak” eta “Hizkuntza Trataera bateratuen” programak	4	
4. beste batzuk		
GLOBALA	5	
Amara –Berri	2	
Psikomotrizitatea	2	
Jolas kooperatiboak	1	
Hezkuntza emozionala	1	
Hizkuntza lantzeko jolasen antolaketa	1	
HH logopedia lantzeko materialprestaketa	1	
Guraso eta irakasle eskola (psikologo batek gidatua)	1	
Proiektu telematikoak	2	
Eskolako Baratza	1	
Irratigintza	1	
Liburutegia	1	
Euskara bultzatzeko proiektua	1	

Ortu ekologikoa	1	
Pentazitatea	1	

B.- Curriculumaren ezarpena baloratu	B	N	G
a.- Ikastetxeko irakasleak jasotako informazioa	1	6	26
b.- Zure ikastetxeko gurasoak jasotako informazioa			27
c.- Irakasleak jasotako formazioa		3	28

3.- Curriculumaren azterketan egiten ari zareten lana	BAI	EZ
a.- Curriculuma aztertzen, ikastetxean lan talderen bat ba al dago?	18 LH1 zikloa mintegika Zuzendaritza+ aholkularitza Klaustroa Batzorde pedagogikoa	11
b.- Zertan ari dira?	AZTERTZEN NOLA BIDERATU3	
curriculuma irakurri,	7	
tutoretza plana prestatu, eguneroko lana aztertu	21	
ICP zaharrarekin konparatzen	3	
EBALUAZIOA IRIZPIDEAK	1	
HEZKUNTZA PROIKETUA BERRIKUSTEN	1	
AJA	1	
informazioa	1	
Konpetentzien inguruan hausnarketa	1	
Ikasbatuaz-ikastolen elkartea		